

MUNDU NAHASIA, MUNDU ASALDATUA: GUIMARÃES ROSAREN *GRANDE SERTÃO:* *VEREDAS, ELEBERRIAN* INDARKERIA DELA ETA

Patricia Carmello

Río de Janeiroko Unibertsitate Federala

pscarmello@gmail.com

Aipatzeko gomendioa || CARMELLO, Patricia (2012): "Mundu nahasia, mundu asaldatua: Guimarães Rosaren *Grande Sertão: veredas*, eleberrian indarkeria dela eta" [artikulu linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 92-104, [Kontsulta data: dd/mm/aa], <http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mono-patricia-carmello-eu.pdf>

Ilustrazioa || Mar Olivé

Itzulpena || Roberto Serrano

Artikulua || Jasota: 21/06/2011 | Komite zientifikoak onartuta: 15/11/2011 | Argitaratuta: 01/2012

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Resumen || Guimarães Rosaren *Grande Sertão: veredas* eleberriko indarkeriaren azterketak azaleratzen ditu garai hartako Brasilgo gatazka historikoak, herria eta hiriaren artean kokatuta, gobernu eta herrialdeko barnealdeko bizi-lagunen artean, Garaileek eta Historiak ahaztu dituzten pertsonen artean. Horrez gain, indarkeriaren gaia honako tentsioan sortzen da, *igarotzen ez den* oroimenaren, errepresioarekin erlazionatua, eta gogoratzea merezi ez duen *pobrezia*ren esperientziaren artean.

Hitz gakoak || Literaturaren Teoria | Guimarães Rosa | indarkeria | oroimena.

Abstract || The analysis of violence in Guimarães Rosa's novel *Grande Sertão: veredas* reveals references to the Brazilian historical conflicts of that time, situated between town and country, the government and people of the country, the Winners and the Forgotten people of history. Furthermore, the theme of violence comes at a tension between a memory not forgotten, related to the repression, and the *poverty of experience* that's not worth remembering.

Keywords || Theory of Literature | Guimarães Rosa | violence | memory.

O grande sertão é a forte arma. Deus é um gatilho?

João Guimarães Rosa

OHARRAK

1 | Hemendik aurrera eleberria aipatzean GSV siglak erabiliko dira, aipamen errepikatzaileak ekiditearren.

Berrogeita hamarreko hamarkadan –orduko presidentearen, Juscelino Kubitscheck, *berrogeita hamar urte bostean* lelopean garapen proiektua pil-pilean zegoela, eta honen punturik altuena hiriburu berriaren eraikuntza izan zela, estrategikoki herrialdeko erdigunean kokatu zen Brasilia, hain zuzen–, hirien hazkundera hain bizia zela ikusita, bitxia da Guimarães Rosaren arreta historiak ahaztu zituen haiengana bideratzea. Nortzuk dira horiek? Idazlearen eleberrian herrietako pertsonaiak, barnealdeko eta zaharturiko Brasil bateko bizi-lagunak, herrixka umiletan, etxaldetan, landetan isolaturiko txaboletan edo ibai ertzetan bizi ziren pertsonak agertzen dira. Zoroak dira, adibidez «Sorôco, sua mãe, sua filha» ipuinean bezala (Rosa, 1988), arrotzak, «A Menina de Lá» ipuinean bezala (1988), edo soldatapeko langileak, mestizoak, bide-lapurak eta prostitutak dira (Starling, 1999: 16).

Laburbilduz, desterru eta babesik gabeko irudiak dira, esaterako Miguilimek (Rosa, 2001) bukatzen du bere haurtzaro zorigaitzokoa hiri batera bizitzera eraman zutenean... *Euclides da Cunha* (2005) ipuineko pertsonaiak *Historiatik at* geratu ziren horien ordezkariak dira, ez kasualitatez. *Os Sertões* (2005) lanean ere Rosak honako gaiak erabiltzen ditu: erbesteratzea, natura ezkutu eta jorian atzerritarra izatea, baita Canudosen historiari aipamenak egiten dizkio ere. Dena dela, *Grande Sertão: veredas*¹ eleberriak unibertso berean biltzen ditu baztertuta dauden izaki hauek guztiak, hondakinak, Brasil garaikideak leku egokia eskaintzen ez dienak (Starling, 1999: 16), fikzioaren bidez *beste* historiako pertsonaia nagusiak bihur daitezten.

Puntu honetatik hasita, nahitaezkoa da zera azpimarratzea, Rosaren eleberrian nola agertzen diren herrialdeko historiari buruzko aipamenak, ez dira ekintza isolatuak, baizik eta pasarteak, beti gogoratzen ari den pertsona baten subjektibotasunari lotuak: Selorico Mendesek gogoratzen du Januária eta Cariranharen inbasioa, 1979. urtean, eta Prestesen zutabea nola igaro zen, zutabeak utzi zuen aztarna narratzailearen lekukotasunaren bidez aipatzen da: «Muitos anos adiante, um roceiro vai lavar um pau, encontra balas cravadas» (Rosa, 2001: 114).

Hemen, garrantzizkoa ez da *gertaeraren* suposatutako objektibotasunaren lerroa, baizik eta narratzailearen eta beste pertsonaien oroimenen fikzioan azaleratzen dena, hondarrak bezala, Brasilgo zatiak, aintzira eta osagai fantastikoetan urtuta, narratzaileak berak, narratzeko ez-gauza dela ulertzen duenean, beste inork baino hobeto deskribatzen duen moduan: «retrato de pessoas diversas, ressalte de conversas tolas, coisas em vago...»

(Rosa, 2001: 221).

Idazleak bere garaiaren gainean duen ikuspegiak Walter Benjaminen Historiari buruzko kontzepziora garamatza, honen helburua «peinar la historia a contrapelo» izango litzatekeela (Benjamin, 1986: 225). Filosofoak dioenez, hauxe da historiagile materialistaren zeregina, historiagile hutsarena ez bezala (hark historiak egitateen kate lineala marrazten du), bada, historiako garaileekin enpatia harremana ezartzea saihesten duelako eta iragan ahaztu eta garaituaren bidez «despertar no passado as centelhas da esperança» bilatzen duelako (1986: 224).

Historiagilearen zereginak, Benjaminen ustean, hiru aldiak jokatzeko dituen denborazkotasuna dakar, bertan iraganak lotura zuzena dauka orainaldi eta etorkizunarekin, Jeanne Marie Gagnebinen aburuz (1982) *iraganaren etorkizuna* da, gerta zitekeenarena, edo ahanzturatik berreskuratu behar dena: «aquilo que teria podido fazer da nossa história uma outra história» (1982: 60). Herrialdeko historiara modu honetan itzulita, Guimarães Rosak orokorrean Benjamin, Freud eta Proustek azaldu zuten ikuspegiarekin bat egiten du (nahiz eta norberak bere erara ikuspegiak garatu): «da mesma convicção de que o passado comporta elementos inacabados; e, além disso, que aguardam uma vida posterior, e que somos nós os encarregados de fazê-los reviver» (1982: 71).

Berez, Rosaren eleberriko *historiaren segizio arranditsuaren* irudi ukaezina aurrerapen anitzetan datza, hirien martxa, aurrerapena eta eskualdearen gainean *gobernuak daukan makina*: «Ah, tempo de jagunço tinha mesmo de acabar, cidade acaba com o sertão. Acaba?» (Rosa, 2001: 183). Idazleak birformulatzen du gatazka egitura berezi honen bidez, baieztapen bakoitzaren ondoren erantzunik ez duen galdera dator, eta honek aurrerapenaren pausoan mozketak sortzen du², hiria eta herriaren arteko talkaren prozesuari dagozkion dialektika eta mugimendua agerian utziz, gobernuaren legea eta herri armatuaren legearen arteko gatazka agerian jarriz, soldaduen eta bidelapurren arteko guda nabarmenduz, azken hauen ikuspuntua lehenengoetik harremanetan azaltzen delarik:

Mas, quem era que podia explicar isso tudo a eles, que vinham em máquina enorme de cumprir o grosso e o esmo, tendo as garras para o pescoço nosso mas o pensante da cabeça longe, só geringonciável na capital do Estado? (Rosa, 2001: 319).

Narratzailearen begirada kritikoa bereizten da utopia eta kritikaren nahaste bat, garai hartan indarrean zegoen modernizazio prozesua zela eta, Riobaldok ere amets egiten du hirian soilik posiblea den *hiritarrekin, una terceira orilla* ipuinean azaleratzen den hiri batean, eskualdea eta hiri zapaltzailea baino zuzenagoa: «mas eu tinha

OHARRAK

2 | Leyla Perrone-Moisések narratzailearen diskurtsoaren ezabaketaz hitz egiten du, laconiarren moduko zentzu batean, «Lá, nas Campinas», ipuinaren amaieran, Rosa aipatuz, zentzuaren eza azpimarratzen du, zentzu berriak sortzeko ezintasuna: «Mas não acho as palavras» (Perrone-Moisés, 2000: 278).

raiva surda das grandes cidades que há, que eu desconhecia. Raiva –porque eu não era delas, produzido...» (Rosa, 2001: 533). Irudi kritikoeak fusileraino helduko ez den promesa batez hitz egiten digute, heltzen ez diren trenez, zubirik eza eta *jauna* bizi den hiriaren arteko kontrasteaz: «o carro-de-bois, levam muitos dias, para vencer o que em horas o senhor em seu jipe resolve. Até hoje é assim» (2001: 118).

Garai bakoitzak sekretu bat ezkututzen baldin badu, Benjaminek dioen bezala (1986: 40), egileak bere fikzioan historiaren idazketa berria eraikitzen du, alderantziz, garaiaren garapenean diskurtsoak galdu dituen zenbait sekretu agerian utzita, hala nola hiria eta herriaren arteko oposaketan dagoen indarkeria, zaharraren eta modernoaren arteko gatazka, leku guztietan modu berean ez doan hazkundera eta herrialdeko barnealdeko pertsonaien eta gobernuko *tresneria urrutikoaren* arteko elkarrizketa eza.

Narratzaileak gerrako xehetasunak deskribatzean etengabe azaleratzen duen kritikaren hisia bizitzaren neurri objektibo batekin parekatzen da, beraz ez du merezi xehetasunik gogoratzea: «Vida, e guerra, é o que é: esses tontos movimentos» (Rosa, 2001: 245), berez, gerrako oroimenek osatzen dute haren kontakizuna: «o senhor exigindo querendo, está aqui que eu sirvo forte narração – dou o tampante, e o que for– de trinta combates. Tenho lembrança» (2001: 245). Ez da bere burua barkatzeko gauza, krimen propioak aztertzeotan, egin zituen bi abusu sexualak barne (2001: 189), garaian nabarmentzen den indarkeria guztiz gaitzetsiz, Zé Bebelo lagunarekin batera, eskualdea bakean zegoelako ametsarekin: «A gente devia mesmo de reprovar os usos de bando em armas invadir cidades, arrasar o comércio, saquear na sebaça» (2001: 147).

Hau dela eta, zera azpimarratu behar da, pertsonaia hauengana idazlearen *begirada* dela eta, historian bide-lapurren ikuspuntua sartzeak ez du esan nahi testua inozoa denik; ezin da esan, era berean, idazlearen ikuspegia *sentikorra* denik, lapurrak ez dira indarkeriaren biktima hutsak:

Remorso? Por mim, digo e nego. Olhe: légua e outra, daqui, vereda abaixo, tigre cangussú estragou e arruinou a perna do Sizino Ló, [...]. Comprou-se para ele, então, uma boa perna-de-pau. Mas, assim, talvez por se ter sacolejado um pouco do juízo, ele nunca mais quer sair de casa, nem se levanta quase do catre, vive repetindo e dizendo: «Ái, quem tem dois tem um, que tem um não tem nenhum...» Todo o mundo ri. E isso é remorso? (Rosa, 2001: 233).

Agerrarazten den erabakiak, *gerra kontatzearen edo gauza garrantzitsuak kontatzearen* artean, badirudi oroimena oraingo errealitatearekin aldentzen duen desberdintasuna iradokitzen duela, gerraren oroimenei balioa kentzeaz gain, gerrako edukiak balioa

galtzen du eta. Berez, oroimenean zauri moduan geratzen dena egon daiteke, ala ez, gerrarekin lotuta. Hala ere, ukaezina da indarkeria Gaizkiaren problematikan gauzatzen dela, eta batez ere gehiegikeria³ bezala gertatzen den zerbaitekin lotutako zauri moduan azaleratzen da. Gertaerak beti egiten die ihes irudimenari eta oroimenari, jasan den orenen zabalerak oroimenetik ihes egiten du eta (Rosa, 2001: 418), lapur ohiak zalantzan jartzen du Gaizkiarekin erlazionatzen den guztia ahazteko aukera dagoenik:

Informação que pergunto: mesmo no Céu, fim de fim, como é que a alma vence se esquecer de tantos sofrimentos e maldades, no recebido e no dado? A como? O senhor sabe: há coisas de medonhas demais, tem. Dor do corpo e dor da idéia marcam forte, tão forte como o todo amor e raiva de ódio (Rosa, 2001: 37).

Mundu nahasia, mundu asaldatua

Beraz, indarkeriak alde batetik bestera zeharkatzen du testua, herria eta hiriaren arteko gatatzka ahaztuak ekarriz, hiriko legea eta eskualdeko ohitura. Rosaren testuko indarkeria zauria eta huskeriaren artean kokatzen da, fikzioa eta historiaren artean, areago, gogoratu eta ahaztu behar denaren artean. José Miguel Wisnik kritikariak hauxe azpimarratzen du, idazlearen lanean ikus daitekeen indarkeriaren sustraia kultura brasildarraren kontu berezia da, legearen gabezia bikoitza (edo legea bikoizten duena), eta hau ez dagokio zoriari edo edozein legek oinarrian duen hutsuneari, baizik eta lege ezari, zeinek «não faz sentido na formação ancestral brasileira» (Wisnik, 2002: 184) eta, beraz, gauzatu behar da honen singularitasunaren barruan.

Schwarzen «As idéias fora do lugar» (1977) lanean adierazten denaren arabera, eta *Raíces de Brasil* (Holanda, 1995) lanean ukitzen diren kontraesanen arabera, Brasilgo historian balegoke errepikatzen den eta enigma moduan geratzen den zerbaite, «entre a violência e a retórica» (Wisnik, 2002: 184), bertan lege komuna ezartzeko saioa, indar basatiaren gainean mugak jartzeko gai, elkarrekin bizi da eskualdeko *indartsuenaren legearekin*: «Sertão. O senhor sabe: sertão é onde manda quem é forte, com as astúcias» (Rosa, 2001: 35).

Wisniken abiapuntua Guimarães Rosaren «Famigerado» ipuina da, *Primeiras Estórias* (1988) bildumakoa, bertan indarkeria —GSV lanean ez bezala— mehatxu zirriborotsua da, baina osteria ere lapur bat, eskualdekoa, legegizon batekin, hirikoa, hitza edo esperientzia argituko dion zentzua bilatzen ari da. Idazlea eskualdetik hirira pasatzeko kontuaz ari da, eskualdeko *legearen ezaz* eta hiri brasildarrean falta den legeaz, ipuinaren mamia den *gositya* hitzaren inguruan elkar ulertzeak (edo ez ulertzeak) sortzen duen egoeran.

OHARRAK

3 | «Além do Princípio do Prazer» ipuinean, gehiegikeriaren ideia eta subjektuak zaurian duen finkotasuna aurki daitezke, Freudek berrartu zuen proposamena, «os históricos sofrem principalmente de reminiscências» (Freud, 1976: 24).

Damázio lapurraren galdera zirikatzailean –São Ñoko mendizerratik hirira doan gizona, medikuari, istorio honetako narratzaileari, gobernuko funtzionario buru-zoro batek zuzendu zion *gosefi* hitzaren esanahia galdetzeko– umorez, baten eta bestearen “arma desberdinak” (Wisnik, 2002: 181) aipatzen dira: «um homem cuja linguagem é a da faca e a da bala está suspenso pelo fio sutilíssimo de uma palavra, podendo no entanto, e a qualquer momento, cair matando» (2002: 181). Behin hirukotea osatuta, lapurra, gizon kultura eta gobernuko funtzionarioa, hemen gure historioko intelektualaren eta ideien arteko lekua azaleratzen da, *balaren boterea* eta botere politikoen artean, guztion hitzarmena lortzeko lekua izan zitekeen, basakeria mugatzeko gauza litekeen legea ezartzeko gune sinbolikoa izan zitekeen.

Duelua «As Margens da Alegria» (Rosa, 1988) eta «Os Cimos» (1988) liburuen lehen eta azken ipuinen argipean gauzatzen da, bertan, salbuespen bezala, Rosak erakusten duen landako ikuspegia alderantziz agertzen da eta pertsonaia nagusia, umea, «lugar onde se construía a grande cidade» (1988: 7) lekura doa, Brasiliako eraikuntzari egindako aipamena, 1960. urtean inauguratu zen, ipuinak kaleratu baino bi urte lehenago. Beraz, gatazkaren gunean kokatzen den eszenatokian gauzatzen da elkarrizketa, eraikuntzaren proiektuaren inguruan sortzen diren kontraesan guztiekin batera, hiria herrialdeko barnealdera eramango duen programa modernizatzaile baten ikurra, bertan botere politikoa ezarriko delarik.

Idazlanak kokatzeko Rosaren eszenatoki kutunak, landak hain zuzen, ipuinetan erakusten duen lekua, historikoki Brasilen, Canudoen gerraz geroztik, bizilagun ugari eragin zioten gatazka bortitzak garatu diren lekua da, guk daukagun irudiarekin bat ez datorrena, «um caráter pacífico e ordeiro» (Grynspan, 2002: 154). Ipuin haien tematikak irauten du GSV-en eta, Wisniken ustez (2002), gure historian zaharkitutik modernora igarotze *traumatiko* batekin lotzen da, hor irudikatzen ez den zerbaitekin, *mundu nahasia* sortuko zuen zerbaitekin, Riobaldoren kexutik, *larresoroak banatzeko* momentuan, hau da gaizkia eta ongia banatzeko momentuan, agerian geratzen dena (Rosa, 2001: 237):

Mas o que se decanta nesses contos é mais um trabalho de luto, nem apologético nem saudosista, onde a saudade é mais funda e inclui o futuro —o desígnio irresolvido que persiste na mudança. A questão aqui não é a passagem sucessiva do arcaico ao moderno, mas a persistência de um no outro (Wisnik, 2002: 179).

Melankoliak, aipatu beharra dago, esaterako GSV-en, «à qual não se entregam» (Wisnik, 2002: 179) pertsonaiek jasaten ez dutena, ez du baztertzeko alaitasunaren esperientzia, hala ere *albo batean* edo *aldizka* agertzen da, kritikariaren ustez ipuinaren amaierako ipurtargi

batan argiaren moduan. «Famigerado» narrazioan, Rosak hitzaren esanahiaren anbiguotasuna lantzen du umorez, esanahi guztietan ager daitekeen anbiguotasuna, hau da, hitzaren erabilerak eraman dezake jatorrizko esanahiaren kontrako esanahi batera, Freudek proposatzen duen bezalaxe (1970; 1988). Brasileko testuinguru historikoaren beste kontraesanekin batera, anbiguotasun honek ebatsi ez den bikoiztasuna erakusten du. Berez, hitza gure jatorritik pilaturiko esperientziatik bananduz gero, lotura-kate baten zehar labaintzen da, hauskor bihurtzen da: «fasmisgerado... faz-me gerado... falmisgerado... familias-gerado...» (Rosa, 1988: 15).

Hala ere, hitzaren esanahi neutrotik laudoriora pasatzeko saioan, ahoskatzean erabili zen zentzu negatibo posiblea ezkututzen da: «Famigerado? Bem. É: “importante”, que merece louvor, respeito» (1988: 16), gizon kultuak egoera (literalki) orokorra errepikatzen du, bertan hitzak apaingarriaren balioa hartzen du, era berean zentzu praktikoa galduz (Schwarz, 1977), adimena “hornidura” bihurtzen da (Holanda, 1995: 84). Hitz jarioak indartsuenak entzun nahi duena esaten du... *konpromisoko osaketa* moduan egina, adimenak gure iragan historikoan aurkitua, bi betebeharrak kontrajarri erantzuteko asmotan (atakatik bizirik atera eta gizaki xumeei azalpenak eman) gertaeran dagoen indarkeria enfasian, ahanzturan, gure *lekuz kanpoko ideien* historiaren parodia antzean mantentzen du.

Formulazio honen barruan badago ere Lacanek sortu zuen kontzeptua, Aitaren Izenaren «forclusión» deritzona, egitura psikotiko bati dagokion legearen instantzia eta (modu erraztuan) hitza sinbolikoki inskribatzen ez denez berau errealitatetik eldarnio eta sukar-ametsetara itzultzen da, psikosirantz eramaten du, hitza haren *gauzaren* balioan hartzen den egoerarantz. Hori egiaztatzen da, esaterako, eldarniozko egituren ziurtasun erabatekoan, itsuan (Lacan, 2008). Ikerketa soziologikoei seinalatzen duten antzeko zerbait: kultura brasildarraren osaketan hitzaren balioa apainketara, horniketara eramaten da; ipuinaren amaieran, Damázioaren pentsaera zalantzatiak hauxe erakusten omen du, Wisniken aipatu moduan, agintarien erakusle bati buruzko hausnarketan, kasu honetan gobernuko funtzionarioa: «Sei lá, às vezes o melhor mesmo, pra esse moço do Governo era ir-se embora, sei não» (Rosa, 1988: 17).

Eta, areago, *konpromisoaren osaketa* dela eta, Sérgio Buarque de Holandak erakusten du nola azukregileen graziaz geroztik begikotasuna, goxotasuna bihurtuko den izaera nazionalaren ezaugarri, jatorrian oinordekotza iberiarra eta afrikarra biltzen zituen *salda* batez osatzen den, esklabokeriaren aurka. Prisma honetan begikotasunak indarkeria onartzen du, haren aurrean hil ez dadin, ezkututzen duelarik (Holanda, 1995: 61).

Brasilia aipatzen duten ipuinetan, hizkuntzaren tartekatze ez-

sinboliko hau ikusten da ume baten begietan, naturaren munduaren eta zibilizazioaren etorreraren artean, «incessante alegria»n (Rosa, 1988: 9), naturaren *itxuraldaketa* «paisagem de muita largura»n (1988: 9) Peruren ikusmenean eta Gaizkiaren aurkikuntzan «no mundo maquinal, no hostil espaço» zehazten da (1988: 10) aireportuko eraikuntza lanetan, «entre o contentamento e a desilusão, na balança infidelíssima, quase nada medeia» (1988: 10).

Beraz, Brasilgo gizartearen osaketaren jatorrian balegoke mozketak sinboliko baten eza edo porrota, hizkuntzaren bidez, bitartekaritzaren bidez esperientzian bereizketa egingo lukeena. Gauzatu ez zenez, hala ere, ekintzetan indarkeria moduan itzultzen da, ez sinbolo moduan, eta honek eragiten du legea eta krimena, polizia eta lapurra, publikoa eta pribatua maila berean onartzen direla eta horregatik gaur egun ere hiriko legea *oihaneko legearen* antzekoa da...

«As margens da Alegria» ipuinean (Rosa, 1988), pasarte honetako indarkeria, kolektiboan ez sinbolizatua, Wisnikek azpimarratzen duen bezala (2002), Niñok nabarituko du subjektiboki, «o inaudito choque» bezala (Rosa, 1988: 11), zauri bat bezala, gehiegikeriaren barruan orden apur bat baimentzen duen neurrian, ezustea nagusia den eta haustura dakarren egoera batean (Freud, 1976: 47), hemen zuhaitzak mozteko esperientziarekin parekatzen den banaketa:

Mostraram-lhe a derrubadora, que havia também: com à frente uma lâmina espessa, feito limpa-trilhos, à espécie de machado. Queria ver? Indicou-se uma árvore: simples, sem nem notável aspecto, à orla da área matagal. O homenzinho tratorista tinha um toco de cigarro na boca. A coisa pôs-se em movimento. Reta, até que devagar. A árvore, de poucos galhos no alto, fresca, de casca clara... e foi só o chofre: *ruh...* sobre o instante ela para lá se caiu, toda, toda. Trapeara tão bela. Sem nem se poder apanhar com os olhos o acerto —o inaudito choque— o pulso da pancada. O Menino fez ascas. Olhou o céu —atônito de azul. Ele tremia. A árvore, que morrera tanto (Rosa, 1988: 10-11).

GSV narrazioan, berriz, Riobaldok legearen eza sentitzen du aginpide politiko baten eskutik igaro eta banaketa, muga ezarri ahal zuten zerbait bezala, *deabrua*, kaosaren ikurra, eta *mundu nahasia* existitzen ez direla baieztatzen duen muga, hain zuzen:

Olhe: o que devia de haver, era de se reunirem-se os sábios, políticos, constituições gradas, fecharem o definitivo a noção —proclamar por uma vez, artes assembléias, que não tem diabo nenhum, não existe, não pode. Valor de lei! [...] Por que o Governo não cuida?! (Rosa, 2001: 31).

Eskualdeko *Indartsuenaren legea* lapurraren salaketan laburbiltzen da, Zé Bebeloren epailetan: «Lei de jagunço é o momento» (2001: 284), «é a misericórdia de uma boa bala» (2001: 284). «Costume velho de lei» (2001: 276), koronel guztien koronelaren aginduz,

lurjabe handien eta bandoen buruzagien arteko itun politikoen emaitza, Selorico Mendesek Riobaldo babestuari jakinarazten dio:

Ah, a vida vera é outra, do cidadão do sertão. Política! Tudo política e potentes chefias [...] Mas, adiante, por aí arriba, ainda fazendeiro graúdo se reina mandador —todos donos de agregados valentes, turmas de cabras do trabuco e na carabina escopetada! (Rosa, 2001: 127-128).

Lurjabeakerakusten diona hauxe da, *Mundu asaldatuan*; araua jadanik desitxuratuta jaiotzen den lekuan, lapurrak badira «ordeiros»ak (2001: 128), hau da, ordenzaleak, sistema konplikatuta hartan nolabaiteko oreka mantentzeko arduradunak, agintzen eta obeditzen duten horien artean ekinez, *ez dagoen legea* sortuz, harrapatzen lagunduz eta aginpide guztiz pertsonalaren bidez *epaia emanaz*. Adibidez, aita hiltzeko biltzen diren anaien kasua, lehenago aitak haietako bati bestea hil zezan agindu ziolako. Lapurren eskutan, biek jasotzen dute orduko buruzagiaren barkamena, Zé Bebelo, lapurrek ez zeukaten idi-taldea mantentzeko baldintzapean. Zé Bebeloren epaiketan, buruzagi bakoitzak bere epaia ematen duenean, justizia egiteko kolektibizazio saioa iradokitzen da, *hirugarren lege* baten zirriborroa osatzen da, bertako balaren ohituraren eta urrutiko gobernu batek inposatzen duen legearen artean...

Aurreko baldintza berberak agertzen dira Zé Bebeloren proiektuan, lapurren munduarekin amai zezaten: «Dizendo que, depois, estável que abolisse o jaguncismo, e deputado fosse, então reluzia perfeito o Norte, botando pontes, baseando fábricas, remediando a saúde de todos, preenchendo a pobreza» (2001: 147). Bakea gerraren bidez lortzeko ironia, gobernuko laguntzaz lapurrekin akabatzeko proposamena —Canudosen gerrarekin parekatuz, lapurrek gobernuko tropak hiru aldiz garaitu zituzten kanpalekua suntsitu baino lehen— Bebeloren oihuan nabarmentzen da, borroka osteko garaipen bakoitzean: «Viva a lei! Viva a lei...!» (2001: 93).

Eleberrian eskualdea forma aldetik elkarrizketa moduan proiektatuz, bertan lapurrak hitz egin eta jauntxoak entzuten duelarik, Guimarães Rosak berriro ekartzen digu Canudosen⁴ egon ez zen elkarrizketa, baita gure kulturaren jatorrian, bitartekaritzan egon ez zen ikurra, mugimenduan dauden aurkari hauek solasean jartzen dituen irudi alegiazkoa:

Na conversa entre o narrador sertanejo, o velho fazendeiro e ex-jagunço Riobaldo e seu visitante, um jovem doutor da cidade, são tematizados as diferenças, os conflitos e os choques culturais, mas também as interações, os diálogos e o trabalho de mediação (Bolle, 2004: 39-40).

Elkarrizketa honetan, *Raíces de Brasil* (Holanda, 1995) eta «Famigerado» (Wisnik, 2002) narrazioak irakurri ostean —bertan esklabokeria, gure indarkeriarik *barnekoena eta nabarmenena* eta

OHARRAK

4 | «Solo faltó una conversación». João de Régis hiritarraren esaldi honekin, agintarien eta Arraial de Canudoseko hiritarren arteko elkarrizketa eza dela eta, Bahia eskualde barruan, 1896 eta 1897 bitartean —armada brasildarrak eskualdeko bizilagunen sarraskia eta 5.200 etxe suntsitu zituenean, hiru espediziotan porrota jaso eta gero— Willi Bollek *Gran Sertón* izeneko ikerketari ekin zion (Bolle, 2004: 17).

gure iragan ahaztua agertzen direla— azpimarragarria da *jauna* hitza, eleberrian hasieratik amaieraraino agertzen dena, era berean nola har daitekeen lapurra, esklaboaren aldean erabiltzen den izendapen bezala, betiko *sinhô*, jakinduria eta abereak zituen jauna, *antzinako betebeharrak* honen aitalehena, hitzak duen esanahi bikoitzean, bai *mitikoa* bai *errudimentuzkoa* (Holanda, 1995: 49; Bolle, 2004: 282-306). Hainbeste denbora igaro ostean ikus daiteke nola Riobaldok *catrumanoen* lekua hartzen duen, eskualdean ezkutatu ziren esklabo ohien ondorengo posibleak, eta haiak hitz egin ohi zuten hizkuntza arraroan *jaunari* zuzentzen zaio: «Tudo isto, para o senhor, meussenhor, não faz razão, nem adianta.» (Rosa, 2001: 546).

Honela, gure herrialdea sortu zen eraketan, gure *jatorriaren irudikerian* eskua sartuz, testuak natura eta jatorriari buruzko kontzeptu idealizatu guztiekin zerikusia duten fantasiak eta etorkizuneko herrialde baten ideari lotzen zaion modernotasunaren ilusioak ekartzen ditu. Zentzu honetan esan daiteke GSV eleberriak herrialdeko “amets kolektiboen” (Bolle, 1994-1995: 92) oroimena sustatzen duela, historiako hondakinen bidez. Baina, era berean, esnatzea posiblea den zerbait bezala aurkezten du, «recordar aquilo que é mais próximo, mais banal, mais ao nosso alcance» (Benjamin, 2007: 434) iragana orainaldiaren eta etorkizunaren arabera berreraikiz.

Alde batetik gaur egun *oroimenaren kultura bereizi gabekoari egiten* zaion kritikak pentsatu arazten digu super-oroimenaren amuaz — Funesek, *el memorioso*, Jorge Luis Borges-en pertsonaiak (2007) aurreikusten zuen bezalaxe— Rosaren testu kritikoak parte hartzen du Brasilgo oroimen kolektiboaren eztabaidan (*hondamendia eraikuntzaren* aurretik datorrelarik) eta Hego Amerikan. Geroago, Brasilen, diktaduraren ahanzturaren politika oraindik erabiliko zuten testuinguru globalizatua ez den indarren joko batean, areago, beste herrialde latinoen moduan, eztabaidan aurreratuagoak, diskurtso propioaren beharra ekarriko zuten, arrastoak ezabatzearen aurka. Era berean interesgarria da nabarmentzeak sorturiko ahanztura eta oroimen historikoa elkar lotze hau jadanik Freudengan zegoela ikustea:

É universalmente reconhecido que, no tocante à origem das tradições e da história legendaria de um povo, é preciso levar em conta esse tipo de motivo, cuja meta é apagar da memória tudo o que talvez seja penoso para o sentimento nacional. (Freud, 1987: 137).

Hari honetan, Rosaren testuan agertzen den indarkeriaren azterketa, *mundu nahasiaren* bidegurutzean jarrita, *mundu asaldatuan*, edo areago, *zoramenaren zikinkerian*, Medeiro Vazek azpimarratu zuen desobedientzian: «impossível qualquer sossego, desde em quando aquele imundo de loucura subiu as serras e se esprou

nos gerais» (Rosa, 2001: 60) –beraz, indarkeriaren azterketa gaur egun egia lokartuen esnatze prozesuan sartzen da, egia hauek huskeriak direla iruditzen bazaigu ere, esaterako: «quem controla o passado, controla o futuro»⁵. Eta beste batzuk, *errazak* ez direnak baina brasildar testuinguruan *barne barnekoak* ematen dutenak, adibidez Marxen ideia, historia errepikatzen dela, “lehenbizi tragedia bezala” –eskualdeko *legearen ezean* ematen den indarkeria– “eta bigarrenez fartsa bezala” (Marx, d/g) –gaur egun hiri handietan ematen den *oihanaren legea*–. Baina, batez ere, testua zirriborratzen da bitartekaritza eta sinbolizatzeko aukera eskainiz, kritika eta utopiaren arteko esparrua iradoki eta betetzen duenean, *hirugarren legea* sortzeko, parte hartzen duten alde guztien hitzarmenaren bidez.

OHARRAK

5 | Orwellen esaldia, 1984an, Edson Telesen eta Vladimir Saflateren *Lo que queda de Dictadura* liburuan goiburu bezala agertzen da (Teles, E.; Safatle, V., 2010).

Bibliografia

- BENJAMIN, W. (1986): *Magia e técnica, arte e política. Obras escolhidas I*, São Paulo: Brasiliense.
- BENJAMIN, W. (2007): *Passagens*, São Paulo: Editora UFMG.
- BOLLE, W. (1994-95): «Grande Sertão: cidades», *Revista USP*, nº 24, 80-93.
- BOLLE, W. (2004): *Grandesertão.br*, São Paulo: Duas Cidades.
- BORGES, J. L. (2007): *Ficções*, São Paulo: Companhia das Letras.
- CUNHA, E. (2005): *Os Sertões*, Rio de Janeiro: Lacerda.
- CUNHA, E. (2005a): *À Margem da História*, São Paulo: Martin Claret.
- FREUD, S. (1970): *Edição Standard Brasileira das Obras Psicológicas Completas de Sigmund Freud*, Rio de Janeiro: Imago, vol. XI.
- FREUD, S. (1976): *Edição Standard Brasileira das Obras Psicológicas Completas de Sigmund Freud*, Rio de Janeiro: Imago, vol. XVIII.
- FREUD, S. (1987): *Edição Standard Brasileira das Obras Psicológicas Completas de Sigmund Freud*, Rio de Janeiro: Imago, vol. VI.
- FREUD, S. (1988): *Edição Standard Brasileira das Obras Psicológicas Completas de Sigmund Freud*, Rio de Janeiro: Imago, vol. XVII.
- GAGNEBIN, J. M. (1982): *Walter Benjamin*, São Paulo: Brasiliense.
- GRYNZPAN, M. (2002): «Da Barbárie à Terra Prometida: o Campo e as Lutas Sociais na História da República» em Gomes, A. C. et al. (orgs.), *A República no Brasil*, Rio de Janeiro: Nova Fronteira: CPDOC, 116-155.
- HOLANDA, S. B. (1995): *Raízes do Brasil*, São Paulo: Companhia das Letras.
- LACAN, J. (2008): *O Seminário. Livro 3: As Psicoses*, Rio de Janeiro: Jorge Zahar Editor.
- MARX, K. (s/d): «O 18 Brumário de Luis Bonaparte», Domínio Público, <<http://www.dominiopublico.gov.br>>, [30/07/2010].
- PERRONE-MOISÉS, L. (2000): *Inútil Poesia e Outros Ensaio Breves*, São Paulo: Companhia das Letras.
- ROSA, J. G. (1988): *Primeiras Estórias*, Rio de Janeiro: Nova Fronteira.
- ROSA, J. G. (2001): *Grande Sertão: veredas*, Rio de Janeiro: Nova Fronteira.
- ROSA, J. G. (2001a): *Manuelzão e Miguilim*, Rio de Janeiro: Nova Fronteira.
- SCHWARZ, R. (1977): *Ao Vencedor as Batatas*, São Paulo: Duas Cidades.
- STARLING, H. (1999): *Lembranças do Brasil: Teoria, Política, História e Ficção em Grande Sertão: veredas*, Rio de Janeiro: Revan, UCAM/IUPERJ.
- TELES, E. e SAFATLE, V. (orgs.) (2010): *O Que Resta da Ditadura*, São Paulo: Boitempo Editorial.
- WISNIK, J. M. (2002): «O Famigerado», *SCRIPTA: Revista de Literatura do Centro de Estudos Luso-afro-brasileiros da Puc Minas*, nº 10, vol. V, 177-197.